Saneamendu-sarea egokia da kontuan hartuta faseen arteko banaketa eta aurreproiektuak eskatzen duen definizio maila mugatua. Proiektuak, ordea, xehetasunak lantzea eskatuko du behin betiko egoeran saneamendua eremu publikotik joan dadin bermatzeko. Horretarako, beharrezkoa da hodian ezaugarriak definitzea. Esaterako, helburu hori lortzeko, hodian ahalmen hidraulikoa aintzakotzat hartu behar da.

HJPK jasotako faseen banaketan lehen faserako N, S, Ñ, R, M eta Q partzeletan ezarritako saneamendu guztiak biltzen ditu eta Q partzela pribatutik daramatza, jada eraikita dagoen saneamendu sare orokorrera.

Etorkizunean, 2. fasea eraikitzean, sare guztia eremu publikotik eramateko aukera dago aurreproiektuak aurreikusitako sare berarekin. Beti ere, batetik, proiektuan hodian ezaugarriek horrela aurreikusten badute, eta bestetik, kontuan hartuz gero aurreproiektuan N, S, Ñ, R eta M partzeletako saneamenduak jarraipena duela L eta P jasotzen dituen saneamendu sarerantz. Finean, azken fasea eraikitzean bermatu daiteke sare guztia eremu publikotik joatea Q partzelak 2 hartuneak mantenduta eta tarteko hodia deuseztatuta.

4.6 URA BANATZEKO SAREA

Ur-hornidurako sareari dagokionez, txostena aldekoa da.

Hala ere, proiektuan kontuan hartu beharreko hainbat puntu gogoraraztea komeni dela uste dut:

-Plan Bereziko txostenean jaso zenez, urbanizazio proiektuak justifikatu beharko du eskatutako batez besteko emaria, eta hidranteak eta sareko gainerako elementuak



(hustubideak, bentosak, sektorizazio-balbulak, etab.) lurzoru publikoan kokatu direla.

-Aurreproiekturako beharrezkoa ez den arren, proiektuan aztertu beharko da pabiloi bakoitzera iristen den presioa eta ur emaria mantentzen dela behar den denboran. Bide batez, diseinatutako sare berria eta aurretik gauzatutako instalazioak aintzakotzat hartuta.

4.7 ENERGIA ELEKTRIKOKO SAREA

Aurkeztutako proposamena egokia da kontuan izanda aurreproiektuaren betebeharrak eta agiriak behar duen definizio maila.

Memorian adierazten da sare elektrikoa enpresa hornitzailearen jarraibideen arabera definitu dela.

4.8 TELEKOMUNIKAZIO-SAREA

Definitutako sarea nahikotzat jotzen da, hain zuzen ere, industria-erabilerako partzeletan aurreproiektuaren ondoriozko beharrei erantzuteko.

4.9 ARGITERIA PUBLIKOKO SAREA

Argiteria sarearen azterketa nahikoa dirudi aurreproiektuaren izaera eta xehetasun maila kontuan hartuta. Dena den, proiektuak hainbat gauza argitu behar ditu, esaterako, mantenimenduaren arabera banatzea sarea. Izan ere, parkeko eremuko sarearen eta industrialdeko sarearen mantenimendua erakunde desberdinek egingo dute. Batetik, industrialdeko Kontserbazio Erakundeak euren mantenimendua kudeatuko du eta, bestetik, udalek jasotako parkeko argiteria Ibarako eta Tolosako udalek mantendu beharko dute. Hori dela eta, argiteriaren eta beste hainbat elementuren kudeaketak udalen arteko adostasuna edo hitzarmena lantzea eskatuko du.

Proiektuko azterketa luminikoak, Plan Bereziaren txostenean adierazi zenez, baieztatu beharko du erabiltzaileen eta eremuaren araberako argiztapena bermatzen dela. Horretarako, aurretik, beharrezkoa izango da mugikortasun azterketaren ondorioztapenak aztertzea eta genero ikuspegitik hausnarketa egitea. Argazkian ikus daitekeenez, parkerako sarrera-irteera tunel luze batek ematen dio Ibarako (Apaterreka) eta Tolosako (San Blas) auzoetatik.



4.10 GAS-SAREA

Definitutako sarearen trazadurak aurreproiektuaren garapenetik eratorritako beharrei erantzuten diela uste da.

Beraz, gasa banatzeko sareari dagokionez, txostena aldekoa da.

4.12 PARKEA

1. **Hiriarteko parkea**

1.1. **Bideak**

Bideen xehetasunak aurreproiekturako nahikoa izan arren, proiekturako azterketa zehatzagoa egitea eskatzen du. Adibidez, lurzoruari dagokionez, erabili beharreko materialak aukeratzeko, gogoan izan beharko dira honako irizpide hauek:

-Ingurumen eta drainatze iraunkorreko irizpideak.

-Erabiltzaileen beharren arabekoak (mugikortasun azterketak definituko dituenak edo irisgarritasun legeek definitutakoak).

-Goroldiko ordezkariaren txostenak jaso bezala, mantenimendua egiteko egokiak diren zabalera eta materialak.

Bideak definitzeko ezinbesteko aurreneko pausoa izango da mugikortasun azterketa. Bertan, industrialdeko mugikortasuna eta industrialdearen eta herrien artekoa aztertu behar dira. Izan ere, parkearen funtzio nagusietako bat izan behar du herrien eta industrialdearen arteko mugikortasun iraunkorra ahalbidetzea.

Horrekin batera, genero ikuspegia gogoan izan behar da parkearen sarrera kontuan hartuta, eta, adibidez, irteera-sarrerari alternatiba bat emanda. Bada bide bat Tolosako hilerri aldera igo eta Tolosako udalerriarekin lotzen dena. Bide bera Zazpibideetako mendi ibilbidearekin lotzen da; horrek, gainera, parkearen erakargarrtasunari lagunduko lioke.



Aurreko adibidearekin adierazi nahi da ezinbestekoa dela mugikortasun azterketa eta genero ikuspegiaren analisia egitea, eta horietatik eratorriko dela bideen definizio xehatua. Esaterako, mugikortasun azterketak adieraziko du definitutako arrapala, oinezkoentzat izateaz gain, bizikleta erabiltzaileentzat ere egokitu behar den edo ez.

2014an GI-2130-A errepidearekiko lotunea kentzea erabaki zuten, kontsulta egin ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Zuzendaritzako teknikariek. Lotuneak industrialdeko trafikoa arintzea zuen helburu. Oraingo proposamenean sortutako trafikoak aurreko faseko errepide eta biribilgunetik pasa beharko du sartu-irteteko, eta GI-2130-A-ko lotura larrialdietarako erabiltzeko aukera egongo da. Hori dela eta, proiektua behin betiko onartzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikarien txostena beharrezkoa iruditzen zait goera berrian bete beharreko ezaugarriak finkatu ditzaten.

1.2. Parkearen geometriaren konformatua.

*Hiriarteko parkea dagoen eremuak, gaur egun, oso geometria edo konformazio artifiziala du: ezpondak oso erregularrak dira, **aldapatsuak**, eta gainazal lauen arteko elkargune zuzenak dituzte, betelan eta zabortegietan ohikoak direnak.*

Betelanaren paisaia-efektua minimizatzeko, Plan Bereziaren azterketan ondorioztatu zen aurreproiektua eta urbanizazio proiektua garatuz, parkearen azken geometria naturalizatuko duen konformatu bat diseinatu beharko dela, betelanaren fronteek sortutako desnibelek dakartzaten mugen barruan. Halaber, uste da bideen ezpondak betelanaren azken geometriara egokitu behar direla eta saihestu malda uniformeko ezpondak dituzten sekzioak.

Irisgarritasun legeen eta mugikortasun azterketaren arabera bideen ezaugarriei lehentasuna eman ondoren, proiektuak xehetasunak jaso beharko ditu geometria naturalagoa lantzean.

1.3. Lorezaintzako mantenimenduaren ikuspegia

Udal lorezaintza zerbitzuko arduradunak adierazi du, bere iritziz, aurreproiektuko proposamena interesgarria dela. Hala ere, 2 aldaketa egitea proposatu du. Lehenengoa, Acer Sacharum espeziea aldatzea proposatu du, ordezkatzeko 2 aukera emanda: Acer Campestris edo Acer Pacific Sunset. Aurreproiektuko Acer Sacharum zuhaitzek hainbat arazo sortu izan dituzte herrian, esaterako, adarrak erraz hausten zaizkie.

Zuhaitzei dagokienez, bigarren proposamen bat egin du lorezainak: zuhaitzen lodiera txikitzea, 12/14 perimetro arte, hala agintzen baitu Europako Batasunak gomendatutako protokoloak.

Bestalde, aipatzekoa da lorezaintzako arduradunak adierazi duela oso egokiak iruditzen zaizkiola zuhaitz-masak eta lorategiak birlandatzeko lubetetan landareak jartzeko proposamena.



Hala ere, bideei dagokienez, aukeratutako materialak mantenimendua egiteko eragozpen larriak sortzen dituela iritzi dio, eta hiri-inguruko parkerako asfaltoarekin osatutako bideak egokiagoak iruditzen zaizkio».

- Hirigintzako buruak 2022ko maiatzaren 5ean egindako txosten teknikoak (JM22017), laburbilduz, honako hau dio:

«(...)

2.- AZTERKETA TEKNIKOAK:

Tolosaldeko Apattaerreka Industri Lurra SA enpresak (aurrerantzean, "TAILSA"), Maria Jesus Celaya Eguigurenek ordezkatuta, Tolosako Udalarekin zenbait bilera egin eta irizpideak adostu ondoren, udaletxean aurkeztu du urbanizatzeko jarduketa-programaren (aurrerantzean, UJP) dokumentua zuzenduta eta ele bitan.

2021eko azaroaren 2an erregistro elektronikotik aurkeztutako dokumentua honako hau da: «APATTAERREKA ESKUALDEKO INDUSTRIALDEAREN "18.1. (TOLOSA) - IBARRAKO LURSAILAK" AZPIESPARRUAREN HIRIGINTZAKO JARDUKETA-PROGRAMA».

Dokumentua María Lasa arkitektoak, Tomás A. Mingot abokatuak eta Amaia Salaverria eta Miguel Salaverria bide-ingeniariek idatzi dute. Honako atal hauek osatzen dute:

- 1. dokumentua: memoria.
- 2. dokumentua: Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa eta ekonomia-jasangarritasunaren memoria.
- 3. dokumentua: dokumentazio grafikoa (informazio-planoak eta antolamendu-planoak).
- 4. dokumentua: Urbanizazio aurreproiektua.

2.1.- TXOSTENAREN HELBURUA:

Txosten honen helburua aurkeztutako dokumentua aztertzea da, Urbanizatzeko Jarduketa-Programari hasierako onespina eman aurretik.

2.2.- PROGRAMAREN HELBURUA ETA EREMUA

Dokumentuaren memorian zehazten da Programaren helburua zein den:

"Dokumentu honen xedea da Tolosako eta Ibarra udalerrietan dauden lursailak hartzen dituen «18.1 (Tolosa) – Ibarra lursailak» azpierenua garatzeko eta egikaritzeko jarduna arautzea eta antolatzea, eta, horretarako, hau ezartzen du:

- a) Jarduketa integratuaren identifikazioa, haren xede den egikaritze-unitatea mugatuta.
- a) Egikaritze publikoaren edo pribatuaren araubidea eta jarduteko sistema.
- b) Jarduketa integratua egikaritzearen zehaztapen juridikoak, teknikoak eta ekonomikoak eta, hala badagokio, eduki minimoen erregulazioa.



- c) Egin beharreko obren eta urbanizazio-kargen osotasuna eta horien kostuaren zenbatespena.
- d) Urbanizazio-obrak eta, hala badagokio, eraikingintza-obrak egikaritzeko denbora-programa”.

Beraz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 152.1 artikulua araberako UJPK jaso behar dituen zehaztapenak betetzen dira.

2.3.-ONARTUTAKO EGITURAZKO ANTOLAMENDUA ETA ANTOLAMENDU XEHATUA BETETZEA

Urbanizatzeko jarduketa-programek ezin izango dituzte inola ere aldatu dagokion plangintzan ezarritako egiturazko antolamendua edo antolamendu xehatua. Hala ere, badute egikaritze unitateak aldatzeko aukera, legean ezarritakoaren arabera.

Aurkeztutako Hirigintzako Jarduketa Programak Plan Bereziak egindako proposamena berresten du, eta eremuaren hirigintza-garapenerako egikaritze-unitate bakar bat mugatzen du. Egikaritze-unitate horretan sartzen dira jarduketa integratuko eta «18.1 (Tolosa) - Ibarako lursailak» azpiesparruko lurzoru guztiak

Tolosako HAPOk, 2009ko martxoaren 3an behin betiko onartu zenak, 18.1 azpiesparruaren ((Tolosa)-Ibarako lurak azpiesparrua) egiturazko antolamendua ezartzen du. Eta antolamendu xehatua, berriz, 2021eko urtarrilaren 28an egindako ohiko osoko bilkuran Tolosako Udalbatzak onartutako «18. Apattaerreka» hirigintza esparruko «18.1. (Tolosa)-Ibarako lurak» azpiesparruko Plan Bereziak arautzen du.

Aurkeztutako dokumentuak azpiesparrurako onartutako egiturazko antolamendua betetzen du, baita aipatutako Hiri Antolamenduko Plan Berezia ere.

2.4.- URBANIZATZEKO JARDUKETA-PROGRAMAREN EDUKIA

Aurkeztutako dokumentua honako atal hauek osatzen dute:

- 1. dokumentua: memoria.
- 2. dokumentua: Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa eta ekonomia-jasangarritasunaren memoria.
- 3. dokumentua: dokumentazio grafikoa (informazio-planoak eta antolamendu-planoak).
- 4. dokumentua: Urbanizazio aurreproiektua.

Gainontzean, dokumentuaren atalek Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 155. artikulua betetzen dute.

2.5.-HIRIGINTZA-EDUKI TEKNIKOA. URBANIZAZIO AURREPROIEKTUA



Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 153. artikulua zehazten du UJPK izan behar duen hirigintza-eduki teknikoa. Hori dela eta, udal ingeniari teknikoak aldeko txostena egin zuen Urbanizazio Aurreproiektuari buruz 2022ko apirilaren 8an.

Dena den, aurreproiektua garatuz, urbanizazio proiektuak landu beharreko hainbat atal zehazten dira. Horiek kontuan hartu beharko dira ondorioz.

2.6.-ESPARRUA GARATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA. URBANIZAZIO ETA ERAIKUNTZA OBREN EPEAK ETA FASEAK

Hona hemen memoriako 7.5 puntuan, laburbilduz, proposatutako programazioa, kontuan izanda bi fase ezarri direla azpiesparruko urbanizazio-obrak egikaritzeko (nahiz eta adierazten den, komenigarritzat jotzen bada, aldi berean egikaritu ahal izango direla):

«Urbanizazio Proiektua entregatu beharko da Hirigintzako Jarduketara Programa hau behin betiko onartu eta gehienez 1 urteko epean, tramita dadin.

(...)

Birpartzelazio- eta urbanizazio-proiektuak behin betiko onartu ondoren, 3 urteko epea aurreikusten da lehen fasean aurreikusitako urbanizazio-obrak egikaritzeko, eta beste 3 urteko epea azpieren aurreikusitako obra guztiak amaitzeko (bigarren fasea).

(...)


Hirigintza-tramitazioa eta adjudikazio-epeak kontuan hartuta, urbanizazio-obraren lehen fasea 2023ko urtarrilean hasi ahal izango litzateke, eta 18 hilabeteko egikaritze-epea izango luke; beraz, obra 2024ko ekainean amaitu liteke, bi udalek obra hartzea barne. Bi urteko epea aurreikusten da eraikin batzuk egikaritzeko eta lehenengo fasea abian jartzeko. Horrela, gehienez ere, bigarren fasea 2026ko ekainean hasiko litzateke eta urtebeteko epea izango luke. Hartara, 2027. urtearen erdialdean amaituko litzateke urbanizazioa».

Orubeen eraikuntza ere 2 fasetan egitea aurreikusten da:

«1. Lehen fasean eraikiko dira lehen fasean urbanizatu beharreko lursailetan dauden N, M, Ñ, Q, R eta S partzeletako emaitzazko industria-orubeak. Eraikingintza urbanizazio-lanekin batera egikaritu ahal izango da, edo urbanizazio-lanak amaitu ostean.

2. Bigarren fasean eraikiko dira urbanizazioko bigarren faseari dagozkion L eta P partzeletako emaitzazko industria-orubeak eta aurreikusten den zuzkidura-eraikina. Lehenengo faseko baldintza berberetan egikaritu ahal izango da eraikingintza, bai eraikingintza- eta urbanizazio-lanak aldi berean eginez, bai azken obra horiek amaitu ondoren».

Kronograma ere erantsi da, aurreikusitako gehienezko epeekin:



Testuan eta kronograman desadostasunak daude (ikus memoriako 21. orria). Ulertzen da epe zuzenak kronogramakoak eta 26. orrian zehazten direnak direla. Beraz, behin betiko onespena emateko, dokumentua zuzendu egin beharko da.

Bestalde, proposatutako kronograma betetzekotan onargarria izan liteke urbanizazioaren lehen fasean proposatzen den T formako behin-behineko konponbidea. Izan ere, lehen faseko eraikuntzak eraikitzerako eta industrialdeko jarduera hasterako bigarren faseko urbanizazioa eginda egongo baita. Baina hori horrela ez balitz, behin-behineko biribilgune bat eraiki beharko litzateke, urbanizazioaren lehen fasean ibilgailuen trafikoak modu egokian funtziona dezan. Izan ere, dokumentuaren 22. eta 23. orrietan ibilgailuen bi biraketa posible aztertu dira, baina ez egon litezkeen biraketa posible guztiak.

Dena dela, udal ingeniari teknikoaren txostenean jasotzen den moduan, betelanak egiteko beharra jasotzen du urbanizazio aurreproiektuak. Hori dela eta, aurreikusi dute udal obren ondoriozko hondeaketa-materialak erabiltzea helburua lortzeko: 127.587 m³-ko lur-berdinketa egitea, hain zuzen ere.

Horregatik, UJPren behin betiko onespenerako beharrezkoa izango da udal ingeniari teknikoak eskatzen duena egitea:

«Betelana ixteko beharrezko koordinazio lanak definitzea, aztertzea eta gauzatzea. Horrekin batera, betelana eratzean, udaletako obretatik eratorritako lur bolumenak zenbatestea denboran zehar, eta datu horien bidez, estimazioa egitea etorkizuneko azken faserako, noiz gauzatu litekeen aurreikusteko (jada eremuan dauden datuen arabera)».

Azterketa horrek bigarren fasea egikaritzeko epe luzeago bat behar dela adierazten badu, UJPk proposatutako epeak egokitu egin beharko ditu eta,



ondorioz, aipatutako behin-behineko biribilgunea edo dagokion soluzioa proposatu beharko da urbanizazio-obren lehen fasean barneratuta.

2.7.-UDALARI DOAN LAGA BEHARREKO LURZATIEN PROPOSAMENA ETA EKONOMIA- ETA FINANTZA-BIDERAGARRITASUNARI BURUZKO AZTERLANA

«18.1 (Tolosa) - Ibarako lursailak» azpiesparruak barne hartzen duen lurzoruaren jabeek nahitaez eta doan laga behar diete udalei egikaritze-unitatearen eraikigarritasun haztatuaren % 15ari dagokion lurzorua, urbanizazio-kargarik gabe, eta lurzoru hori partzela eraikigarri batean edo batzuetan gauzatu behar da.

Memoriako 7.7. puntuan proposatzen da antolamenduak sortutako gainbalioetan erkidegoak duen parte-hartzearen ondorioz Tolosa eta Ibarako udalei doan laga beharreko lursailak urbanizazioaren 2. fasean sartzen diren partzeletakoak izatea.

Proposamen hau onargarria izan dadin, Udalak nolabait bermatu beharko luke bigarren fase hori atzeratuko balitz berari dagokion eraikigarritasun haztatuaren % 15 hori eskuratzeko moduren bat. Hala ere, Birpartzelazio Proiektuak ezarriko ditu laga beharreko behin betiko lurzoruak, eraikigarritasun haztatuaren % 15i dagozkionak, edo lagapenak gauzatzeko modua.

Bestalde, finantza-bideragarritasunari buruzko azterlanean erabili diren balioak eta homogeneizazio-koefizienteak ere Birpartzelazio Proiektuan berrikusi eta justifikatu beharko dira.

2.8.- INDUSTRIALDEKO MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN PLANA

Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren eta Ingurumen Azterketa Estrategikoaren dokumentuetan aipatzen zen Industrialderako Mugikortasun Jasangarriko Plana aurkeztu da Udaletxean. Dokumentu hori dagokion espedientean aztertuko da. Dena dela, urbanizazio proiektuan barneratu beharko dira bertan ezarritako irizpideak eta proposamenak.

2.9.-TXOSTEN JURIDIKOA

Dagokion txosten juridikora bideratzen da, gainerako gai juridikoei dagokienez».

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Urbanizatzeko jarduketa-programaren edukia.

Tolosaldeko Apattaerrika Industri Lurra SA enpresak (aurrerantzean, "TAILSA"), Maria Jesus Celaya Eguigurenek ordezkaturik, Tolosako Udalarekin zenbait bilera egin eta irizpideak adostu ondoren, udaletxean aurkeztu du urbanizatzeko jarduketa-programaren (aurrerantzean, UJP) dokumentua zuzenduta eta ele bitan.

Honako eduki hau dauka aurkeztutako UJP dokumentuak:

1. Memoria justifikatiboa, egikaritze-programazioarekin.
2. Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa.
3. Planoak.
4. Urbanizatzeko aurreproiektua.



Adierazitako dokumentuaren edukiak bat egiten du Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 155. artikulua eskatutako agiriekin.

Aipatutako 2/2006 Legearen 158. artikuluan adierazten den urbanizazio-kostuaren % 1eko bermeari dagokionez, "TAILSA" eskatzaileak berriaz eskatu du berme hori jartzetik salbuesteko, adieraziz sozietate horren akziodunak erabat publikoak direla. Hala, adierazi du parte-hartzaileak eta haien kuotak zein diren:


- 1) Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila, % 51eko partaidetzarekin, SPRILUR SA sozietate publikoaren bidez (akziodun erabat publikoen bidez).
- 2) Gipuzkoako Foru Aldundia, % 24,5eko partaidetzarekin.
- 3) Apataerrekako Industriagunea SL, Tolosaldeko hainbat udalen partaidetzarekin, horien artean, Tolosako Udalarena.

Beraz, "TAILSA" administrazioa ez den pertsona edo entitatea ez denez, onargarria da aipatutako % 1eko bermea jartzetik salbuesteko egindako eskaera.

II. Aurreikusitako denbora-programaren azterketa.

Sustatzaileak egikaritze pribatuko araubidearen alde egin du eta Hiri Antolamenduko Plan Bereziak proposatutako hitzarmen-sistema bidez jardungo da. Honela, egikaritzearen zehaztapenak betetzeko epeak ezartzen ditu eta, zehazki, honako hauek egiteko, adierazitako epeetan:

- i. UJPren behin betiko onespina
- ii. birpartzelazio-proiektua aurkezteko epea
- iii. birpartzelazio-proiektuaren aurkezpena
- iv. birpartzelazio-proiektuaren udal tramitazioa
- v. urbanizazio-proiektua aurkezteko epea
- vi. urbanizazio-proiektuaren aurkezpena
- vii. 1 faseko urbanizazio-obren hasiera
- viii. 1 faseko urbanizazio-obren gauzatzea
- ix. Tolosako eta Ibarako udalek 1 faseko urbanizazio-obren harrera
- x. merkaturatzea
- xi. orubeak eraikitzea
- xii. 2. faseko urbanizazio-obren hasiera
- xiii. 2. faseko urbanizazio-obren gauzatzea
- xiv. Tolosako eta Ibarako udalek 2. faseko urbanizazio-obren harrera
- xv. orubeak eraikitzea



Ikusi da UJPren memoriaren 7.5 epigrafeko testuaren eta kronogramaren artean zenbait desadostasun daudela. Hori dela eta, ulertzen da epe zuzenak direla kronogramakoak eta adierazitako epigrafeko 26. orrialdean zehazten direnak. Beraz, behin betiko onespena emateko, beharrezkoa izango da dokumentua zuzentzea.

III. Jarduketa integratuko tokiko zuzkidurak kokatzeko proposamena.

Tokiko zuzkidura publiko guztien euskarri izango diren lursailak Udalarri lagako zaizkio azpiesparruaren jarduketa integratuko egikaritze-unitate bakarraren birpartzelazio-proiektuaren behin betiko onarpena ematean (memoriaren 7.6 epigrafea).

IV. Udalak hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan esku-hartzeari buruzko proposamena.

UJPren memoriaren eduki juridiko-urbanistikoaren 7.7 atalean aipatzen da, hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioak proposatzearekin batera, nola lagako den urbanizazio-kargarik gabeko eraikigarritasunaren % 15. Hala, urbanizazioaren lehen faseak bigarrenak baino gastu nabarmen handiagoa izango duenez, planteatzen da lehen faseko orube guztiak merkaturatzea inbertsioaren zati bat berreskuratu ahal izateko. Hori dela eta, proposatzen da antolamenduak sortutako gainbalioetan erkidegoak duen parte-hartzearen ondorioz Tolosa eta Ibarra udalei doan laga beharreko lursailak —urbanizazio-gasturik eta bestelako kargarik gabe—, urbanizazioaren bigarren fasean sartzen diren partzeletakoak izatea.

Adierazitako proposamen horri dagokionez, hirigintza buruak egindako txostenean adierazten den bezala, proposamen hori onargarria izan dadin, Udalak nolabait bermatu beharko luke bigarren fase hori atzeratuko balitz berari dagokion eraikigarritasun haztatuaren % 15 eskuratzeko moduren bat. Hala ere, Birpartzelazio Proiektuak ezarriko ditu laga beharreko behin betiko lurzorua, eraikigarritasun haztatuaren % 15i dagozkionak, edo lagapenak gauzatzeko modua.

V. Jendeari beste bizileku bat emateko programa.



Ez da aurreikusi jendeari beste bizileku bat emateko programarik, ez baita eragiten bizitegi-eraikuntzetan.

VI. Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa.

UJPN sartu da [2. dokumentua] ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa eta ekonomia-jasangarritasunaren memoria, dokumentu analitiko gisa, «18.1 (Tolosa)-lbarako lurak» azpiesparruaren garapena zer egoera ekonomikotan planteatzen den aztertu eta urbanizazio- eta eraikuntza-aurreikuspenak sustatzearen eta egikaritzearen bideragarritasun ekonomikoa ezartzeko, errentagarritasunaren eta irabazien eta kargen arteko oreka egokiaren terminoetan.

Azterketa horren arabera, behin-behineko izaerarekin kalkulatu da legezko % 15eko lagapenaren bidez Tolosako Udalari legokiokeen lurzoruaren azalera, zeinaren azken zehaztapena urbanizazio-proiektuan eta birpartzelazio-proiektuan berrikusi eta justifikatu beharko den, UJP dokumentuan bertan zein hirigintza buruaren txostenean adierazten den bezala.

VII. Informazioaren publizitate aktiboa.

Urbanizatzeko jarduketa-programa onartzeko eta esleitzeko prozesu osoan, publizitate aktiboaren eskakizunak bete beharko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.4 artikuluan eta gardentasunaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

VIII. Urbanizatzeko jarduketa-programari hasierako onespina emateko prozedura.

Jarraitu beharreko prozedura da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 156. artikulua xedatutakoa:

«(...) Hasierako onespinari buruzko erabakia hartzen denean, programaren funtsezko edukiak jasotzen dituen iragarki bat jarriko da lurralde historikoko aldizkari ofizialean, eta 20 eguneko epea irekiko da, gutxienez, jendurrean jartzeko eta alegazioak jasotzeko. Jarduketak eragindako ondasunen eta eskubideen titularrei ere jakinaraziko zaie erabakia. Espediente osoa udal-bulegoetan kontsultatu ahal izango da jendurrean egoteko epeak dirauen bitartean.

Alegazioen bat baldin badago, horiek jaso, ikusi eta aztertu ondoren, udalak behin betiko onspina emango dio urbanizatzeko jarduketa-programari gehienez ere bi hilabeteko epean, hasierako onspen-erabakia lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita. Epe hori erabakirik eman gabe bukatzen denean, behin betiko onartu dela iritziko zaio, betiere interesdunei jakinarazteko tramitea burutu baldin bada (...).»

Hortaz, UJP jendurrean jarriko da hogeitun egunez, aztertu eta bidezko alegazioak aurkeztu ahal izateko, iragarkia udaletxeko iragarki-taulan jarrita, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta hedadura handieneko egunkari batean edo batzuetan argitaratuta. Era berean, interesdunen eskura egongo da Tolosako Udalaren egoitza elektronikoan.



Bestalde, jarduketak eragindako ondasunen eta eskubideen titularrei jakinaraziko zaie.

Alegazioak jaso ondoren, eta horiek ikusita eta kontuan hartuta, Udalak urbanizatzeko jarduketa-programa behin betiko onartzea erabakiko du, gehienez ere bi hilabeteko epean, hasierako onespeneren erabakia lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Eta, epe hori igaro eta ebazpenik eman ez bada, behin betiko onartutzat joko da, betiere interesdunei jakinarazteko izapidea amaitu bada.

IX. Urbanizatzeko jarduketa-programari onespenera emateko organo eskuduna.

Alkatetzari dagokio UJPri onspenera ematea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.j) artikulua). Tolosako Udalarri dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkatetza Dekretuz. Hortaz, organo horri dagokio UJPren hasierako onspenera ematea.

AZTERKETA JURIDIKOA

«18.1 (Tolosa)-Ibarrako lurak» azpiesparruko Urbanizatzeko Jarduketa-Programaren azken dokumentuak (2021eko azaroaren 2an zein 17an aurkeztutakoa) betetzen du 2021eko urtarrilaren 28an behin betikoz onartutako «18. Apattta Erreka» hirigintza esparruko «18.1 Tolosa-Ibarrako lurak» azpiesparruko hiri antolamenduko Plan Berezia, baita Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritako zehaztapen materialak eta formalak ere. Hala eta guztiz ere, aipatutako Plan Bereziaren behin betiko onspeneran adierazitakoa gogorarazi beharra dago, zehazki, honako hau:

- *«Plan Bereziaren eta Ingurumen Azterketa Estrategikoaren dokumentuetan aipatzen den Industrialderako Mugikortasun Jasangarriko Plana egitea urbanizazio proiektua egin aurretik. Plan horretan atal hauek aztertu beharko dira, besteak beste:*

1. Ibarrik industrialde berrira bizikletentzako planteatu den bidea oinezkoen bidetik bananduta edo segregatuta egotea.

2. Aztertu beharko da zein den biderik egokiena San Blas auzoko sarrera eta industrialdeko goiko aldea lotzeko, beste zubi bat egiteko aukera ere barneratuz.

3. Azaldu beharko dira 2. fase honen beheko errotondatik gaur egun eraikita dagoen eremura joateko oinezkoen eta ibilgailu ez-motorizatuen mugikortasuna sustatzeko hartu beharreko neurriak».

Bestalde, Urbanizatzeko Jarduketa-Programaren behin betiko onarpena eman aurretik, honako hau zuzendu beharko da:

- UJPren memoriaren 7.5 epigrafeko testuaren eta kronogramaren artean zenbait desadostasun daudenez eta ulertzen denez epe zuzenak kronogramakoak eta adierazitako epigrafeko 26. orrialdean zehazten direnak direla, behin betiko onspenera emateko beharrezkoa izango da dokumentua zuzentzea.

Hasierako onspeneren erabakiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzean, beharrezkoa izango da UJPren funtsezko eduki hauek adieraztea:

- A) Jarduera integratua: «18.1. (Tolosa)-Ibarrako lurak» azpiesparrua
- B) Gauzatze-araubidea: hitzarmen-sistema.
- C) Eraikigarritasun fisikoa:



- Sestra gainean: 62.410 m²(s) (Tolosa 31.593 m²(s)).
Sestra azpian: 41.050 m²(s) (Tolosa 20.875 m²(s)).
D) Urbanizazio-aurrekontua: 6.906.538,08 €.
E) Urbanizazio-kargak: 12.922.522€.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan izanik udal teknikariek egindako txosten teknikoak zein juridikoa eta aplikatu beharreko lege-xedapenak, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA «18. Apatza Erreka» hirigintza esparruko «18.1. (Tolosa)-Ibarrako lurrak» azpiesparruko Urbanizatzeko Jarduketa-Programari (2021eko azaroaren 2an zein 17an aurkeztutakoa), Tolosako udalerriko lursailei dagokionez, honako baldintza hauek betetzekotan, UJPri behin betiko onespena eman aurretik:

- Testuan eta kronograman desadostasunak daude eremua garatzeko epeen inguruan; epe zuzentzat kronogramakoak eta memoriako 26. orrian zehazten direnak hartu dira. Ondorioz, testua zuzendu egin beharko da.
- Aipatutako epe horiek bete daitezkeela ziurtatzeko beharrezkoa izango da betelana ixteko beharrezko koordinazio lanak definitzea, aztertzea eta gauzatzea. Azterketa horrek bigarren fasea egikaritzeko epe luzeago bat behar dela adierazten badu, UJPK proposatutako epeak egokitu egin beharko ditu, eta, ondorioz, aipatutako behin-behineko biribilgunea edo dagokion soluzioa proposatu beharko da urbanizazio-obren lehen fasean barneratuta.

BIGARRENA.- Adieraztea, Udalari doan laga beharreko lurzatiei dagokienez, Birpartzelazio Proiektuak ezarriko dituela laga beharreko behin betiko lurzorua, eraikigarritasun haztatuaren % 15i dagozkionak, edo lagapenak gauzatzeko modua eta epea. Bestalde, finantza-bideragarritasunari buruzko azterlanean erabili diren balioak eta homogeneizazio-koefizienteak ere berrikusi eta justifikatu beharko dira Birpartzelazio Proiektuan.

HIRUGARRENA.- Ohartaraztea, aurreproiektua garatzean, Urbanizazio Proiektuak honako atal hauek landu beharko dituela:

- Betelana ixteko beharrezko koordinazio lanak definitzea, aztertzea eta gauzatzea. Horrekin batera, betelana eratzean udaletako obretatik eratorritako lur bolumenak zenbatestea denboran zehar, eta datu horien bidez, estimazioa egitea



etorkizuneko azken faserako, noiz gauzatu litekeen aurreikusteko (jada eremuan dauden datuen arabera).

- Aintzakotzat hartzea mugikortasun azterketatik eratorritako ondorioztapenak.
- Lurzoru publikoan kokatzea zerbitzu-sareen kanalizazioen trazadura eta elementuak esaterako, behin betiko saneamendua dimentsionatzeko helburu hori aintzakotzat hartuta.
- Justifikatzea partela bakoitzeko ur-emariak denboran zehar mantentzeko ahalmena eta presioak.
- Banatzea kontserbazio erakundeak mantenduko duen argiteria eta udalek mantendu beharrekoa.
- Azterketa luminikoa egitea, aurretik, erabiltzaileen eta urbanizazio elementuen araberako diseinua eginda
- Aztertu eta arrazoitzea parkean ahalbidetu daitezkeen drainatze iraunkorreko teknikak, zeinek solidoen bereizgailu hidrozikloko sistema ordezkatu dezaketen. Beti ere, aldeko eta kontrako alderdien hausnarketatik ondorioztatzen bada neurri horien eraginkortasuna eta egokitasuna.
- Plan Berezian jasotakoaren arabera, mendi-hegalen, bideetako ezpondaren eta gainerako gainazalen geometriaren konformazioa diseinatzea, bat etorritik parke batek eskatzen duenarekin eta ingurune natural bati dagokionarekin.
- Hiriarteko parkearen helburu nagusienetarikoa da mugikortasun iraunkorra ahalbidetzea herrien eta industrialdearen artean, eta hori lortzeko, beharrezkoa da eremurako irteera-sarrerak aztertzea genero irizpideak aintzakotzat hartuta. Esaterako, tunela gurutzatzeko edo saihesteko hartu beharreko neurriak, adibidez, bide alternatiboa indartuta, Tolosako hilerrira eta Zazpibidetako biderantz doana. Horrek herriak lotzeko beste aukera bat bermatu dezake.
- Hausnarketa jasotzea, parkea erabilgarri izan dadin, zein erabiltzailerentzat izan behar duen, ezaugarri hauek kontuan hartuta: parkea eta erabiltzaileen kokapena, edo sarrera-irteerek erabiltzaileengan sortutako mugak. Parkea zein erabiltzaileri zuzendu behar zaion aztertu behar da, adibidez, 10-14 urte bitarteko txirringarientzat desnibelak dituen pista sortzea komeni den.
- Bideen azterketa zehatzagoa egitea. Plan Berezian eskatu zuenez, bideen ezaugarriak landu behar dira parkearen izaera naturalagoa lortzeko: berraztertu behar dira geometria, zoladura, argiztapena eta euri-uren kudeaketa bideetan. Esate baterako, oinezkoentzako arrapala beharrezkoa bada, bizikletentzat egokitzea.
- Aztertzea lorezaintzako arduradunak egindako iradokizunak:



- *Acer Sacharnum* espezien ordeaz *Acer Campestris* edo *Acer Pacific Sunset* jartzea.
- Zuhaitzen lodiera txikitzea 12/14 perimetro arte.
- Bide egokiak bermatzea lorezaintzako mantentze-lanak egiteko.

Horietaz gain, adieraztea industrialderako Mugikortasun Jasangarriko Plana dagokion espedientean aztertuko dela, eta Mugikortasun Jasangarriko Planean ezarritako irizpideak eta proposamenak urbanizazio proiektuan barneratu beharko direla.

LAUGARRENA.- Urbanizatzeko jarduketa-programa hogeitaz eguneko jendaurrean jartzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz (*azterketa juridikoan zehaztutako funtsezko edukiarekin*) eta lurralde historikoan zabalkunderik handiena duten egunkarietan argitaratuz, egoki irizpideak alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Interesdunen eskura egongo da, halaber, udal honetako iragarki-taulan eta egoitza elektronikoan.

BOSGARRENA.- Erabakia jarduketak eragindako ondasunen eta eskubideen titularrei jakinaraztea.

5. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2022/1301 DEKRETUA: 2022/6 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2022/1301 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2022KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:



6. zenbaki duena, 58.491,58 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

6. zenbaki duena, 58.491,58 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2022/1391 DEKRETUA: 2022/7 ETA 2022/8 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2022/1391 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2022KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:

7. zenbaki duena, 179.944,93 eurokoa.



8. zenbaki duena, 480,9 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

7. zenbaki duena, 179.944,93 eurokoa.

8. zenbaki duena, 480,9 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2022/1397DEKRETUA: 2022/9 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2022/1397 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2022KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.



TOLOSAKO
UDALA

2022IGBA0010

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:

9. zenbaki duena, 501.521,9 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

9. zenbaki duena, 501.521,9 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 12:10ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IGBA0010-2022-05-10 Gobernu batzarreko akta/2022-05-10 Gobernu